

Arratsalde on,

Hendaia Biltzen herriko zerrendaren izenean, joan den urtarrilaren 21ean, engaiamenduen barometrorako gure ekarpena egin genuen.

Mezu honen bidez, ekarpen hori osatu nahi genuke.

Batetik, badira 2 neurri identifikatu ez genituenak, baina aplikatuko ditugunak halere.

Lehena, euskara teknikariaren inguruko da: Hendaian 2 dira lan horretan ari diren teknikariak, bigarrena azken kargualdian hartu du herriko etxeak. Bistan da gure asmoa postu horiek egonkortzea dela. Baina hori baina gehiago egin nahi genuke. Hasteko hizkuntza politikaren misioa eta edukia argituko ditugu, kulturaren eta hizkuntza politikaren alorrak bereiziz. Horiek argiturik, teknikarien egitekoak eta, behar izanez gero, postu fitxa egokituko ditugu, haien zeregina euskararen alorrean gara dezaten ehuneko ehunean.

Bigarren puntua da euskarazko berezko aurrekontua bozkatzearena. Atal honetan ere gure aldeko engaiamendua argia da, izan ere, aurrekonturik gabe ez da hizkuntza politikarik. Baina bozkatzeko dena aurrekontu orokorra da, ez bakarrik euskarari dagokiona, beraz, horrela ulerturik, erran dezakegu engaiamendu ere gure gain harritu dugula.

Dena den, jakin ezazue azken kargualdian Hizkuntza Eskubideen Protokoloari buruzko lanketa egin genuela Kontseiluarekin batera urtebetez. 2022an bururatu genuen lana. Diagnostikoa sakonki landu ondoren, azterketa juridikoa kontuan hartuz, Kontseiluak zenbait gomendio egin zizkion herriko etxeari. Ondorio garbiena: oinarria badela Hendaian eta jauzi kualitatibo bat egiteko garaia dela. Horren gainean gure udal taldeak bide orri bat prestatu zuen, ondotik herriko etxeko gehiengoak aplikatu nahi izan ez duena. Protokoloaren lanketa herriko euskalgintzari aurkezteari ere uko egin dio gehiengoak, euskalgintzak diagnostikoa eta lehentasunen identifikazioa egiteko bilkuretan parte hartu zuen arren. Dokumentu interesgarria delakoan, helarazten dizuegu.

Azkenik, bigarren dokumentu bat ere igortzen dizuegu, hauteskunde kanpainari begirako gure programaren puntu nagusien laburpena euskararen alorrean.

Atal nagusi hauetan ezarriko dugu gure indarra, hauteskundeak irabazten baditugu:

- Euskararen sustapena, transmisioa eta erabilera.
- Euskararen udal aitortza egin.
- Komunikazio elebidun parekidea aplikatu. Berdintasuna parekidetasun ideia horren inguruan landu nahi dugu. Genero parekidetasunaren ildotik, hizkuntza alorrera eraman nahi dugu praktikara. Hiztun kopurua dena delakoa, maila berean ezarri behar ditugu euskara eta frantsesa udalgintzan.
- Lan onomastiko sakona egin, herriko ondarea gal ez dadin (toponimia eta pertsona izenak).
- % 30eko hiztun tasara hurbiltzeko lan sakona egin behar dela ohartarazi jendarteak, baliabideak eta egiturak eskainiz.

Horra, beraz, osagarri gisa helarazi nahi genizuen mezua.

Paulo Arzelus Aramendi

